

41.  
zbk.

# KOTARRO

2018ko martxoa

debaldeko alea

## Garean Agenda

### LIZARRAN KANTUZ

Apirilak 28  
20:00 - Baxenabarra kaletik abiatuta

### TXOKOLIPUINAK

Martxoak 28 eta apirilak 25  
18:00 - Bota elkarteetan

### IRAKURLE KLUBA

Apirilak 26  
19:30 - liburutegian

### GO!AZEN

Apirilak 22  
16:00 I. saioa eta 18:00 II. saioa  
Los Llanos Kulturagunean



### IRAKURRI, GOZATU, OPARITU

Maiatzak 31 arte

### BESTELAKOAK

Martxoak 17  
Mañeruko Euskararen Eguna.

Sukaldaritza tailerra  
17:00 Aritzala (Deierrri).

Zinema: «Oin Handiren semea»  
16:45 - Los Llanos zinemetan

Euskararen Eguna  
Larrion (Lokitzaldea)

Martxoak 24  
Ofizialtasunaren aldeko manifestazioa  
17:30 Iruñeko bus geltoki zaharretik

Martxoak 23 eta 24  
Euskararen Eguna  
Eulate eta Zudairi (Ameskoa)



Argazkia: Gaizka Peñañiel

## Lizarra musikaz blai

*Aldapan gora ... Dan dan! Ate joka! Dan dan!  
Inperuko atien... Zure atea jo nuen, ez zenuen ireki ...  
Txatxamalinatxu neska morena ... Nere herriko neskatxa  
maite ... Amets, zatoz jada nigana ... negua joan da ta*

Ziur ez zaizula zaila egin asmatzea aurreko abesti zatiak zein musika talde edo bakarlariarena diren. Nola? Ez duzula bat edo beste asmatu? Benetan? Lasai, Kotarro honen hurrengo orrialdeetan murgiltzea besterik ez duzu deskubritzeko. Deskubritu, eta jabetzeko azkenaldian Lizarraldeko kontzertuen zirkuitua zeinen aberatsa izan den.

Euskal musikak ederki astindu ditu gure belarriak eta lehen mailako kontzertuak entzun ahal izan ditugu azkenaldian. Ez hori bakarrik, aldizkari honen kontra-azalan ikus daitekeen bezala, kalitatezko kontzertuek segida izanen dute gurean.

Baina, egun bakarreko lorea izan da? Errepikatuko ez dena? Jakinmina asetu nahian gurean musikagintzan dabilzan hainbat laguni, izan antolaketan zein sorkuntzan, galdera luzatu nahi izan diogu.



## Mikel Diaz Oses

### «lazko musika eskaintza bikaina izan zen Lizarran»

#### I- Zer iruditu zaizu azkenaldian Lizarran izan dugun musika programazioa?

lazko musika eskaintza bikaina izan zen, zalantzarik gabe, Lizarra bolada onean dabil musika programazioan azken urteotan. Punta-puntako taldeak izan ditugu hainbat estilotan: goi mailako bakarlariak (Benito Lertxundi, Mikel Urdangarin, Niko Etxart), rock & rolla (Gatibu, Zea Mays, Porco Bravo), metal alternatiboaren euskal talderik internazionalena (Berri Txarrak), punk-rocka (Kaotiko, K.O. Etílico, Pura Posse), soinu mestizoak (Esne Beltza, Mafalda, Afu), reggae-rap (Raperos de Emaús & The Titanians) eta pop musika ere (Izaki Gardenak, Gari). Hala nola zirkuitu independentearen barruan ospea dutenak (Niña Coyote eta Chico Tornado, Con X the Banjo) edota techno zirkuituan (Carlos Pérez).

Aipatu behar egungo euskal triki-pop talderik entzutetsuena bertan izan dugula (Huntza), bertoko folklorea lantzen dutenak (Kherau edo Aiko taldearen Bandtzaldia proiektu bikaina) eta baita Galiziako musika zeltan (Ulträquäns) oinarrituriko estiloak

ere. Euskaraz zein erdaraz, edota musika instrumentala, kalitatezko eskaintza anitza.

Horrekin batera, aurtengo Jazz programazio izugarria izan da (Mikel Andueza, Enio Pinillos, Yerri Jazz Band eta abar) eta Antzinako Musikaren Asteak, urtero bezala, kalitate handiko nazioarteko eskaintza ekarri digu etxe ondora. Orkestra zein cover bandatan ere goi mailako taldeak izan ditugu.

Ez nituzke ahaztu nahi bertakoak, une onean baitaude musikari gazte eta ez horren gazteak. Honela, talde guztiak (asko dira), kaña ematen ibili dira, batez ere uda garaian: Bolbora, Mala Pekora, Bide Bakarra, Aizkora, Últimos Reyes, Irkaia, Breaking the Night, Flitter (oraintxe atera dute disko berria), JUM, Kelly Kapowsky, eZen Balea...

#### 2. Eta antolatzaileen aldetik?

Bai, antolakuntza aldetik ere aniztasun zabala izan da: Nafarroako Gobernuak antolaturikoak (Antzinako Musikaren Asteak, Kultur...),



**LIZARR**

Lorategi mantentze-lanak  
LOREZAINITZA

Valdelobos, 35  
31200 ESTELLA-LIZARRA  
T. 948 554 067 - F. 948 395 112  
M. 606 980 679  
lizarrjard@hotmail.com



Helbide berria!



Mundua deskubritzeko  
jostailu eta jolasak

Kale Nagusia, 23 · Estella-Lizarran · 948 985 306

Estella-Lizarrako Udalak antolatutakoak (Jaietako plazako kontzertuak, Lizarreria Fest...), boluntarioek autogestioan antolatutako elkartasun jaialdia (EGAfest), Festa Giro Taldea (Lizarrako txosnak eta txosna txikiak), enpresa pribatuak (SaldFest), Lizarra Ikastola (Los Llanos kulturagunean eta Santiago plazan jaietan), La Bota peña, tabernak (Katxetas), La Hormiga, kultur elkarteak (Malas Pulgas), Pinupe Gaztetxea, Euskalgintzan lan egiten duten kolektiboak (Euskararen Maratoia) e.a. luzea...

Kalean eta areto estalietan, debalde eta sarrerarekin, denetik egon da.

### 3. Hori Ega ondoko hirian, baina inguruan izan da mugimendurik, ezta?

Inguruko herri txikietan ere musika eskaintza zoragarria izan da: Zubiako La Korrontxa jaialdiaren 13. edizioan Eskorzo (Granadako rock mestizoa 20 urteko esperientziarekin), Galdean La Reggaera (Burgoseko patchanka talde gaztea), Arellanon Josetxu Piperrak (Nafarroako Eribera Garaiko punk talde mitikoa), Ameskoako San Martinen eta Deieriko Zurukuainen Zopilotes Txirriak (napar-mex-aren egungo erreferentea) e.a.

Ziur baten bat ere bidean geratuko zaidala, egon den aniztasunaren seinale, nire memorian jada ez dira denak kabitzen...

### 4. Esan daiteke garai ona dela kontzertuak antolatzeko?

Erimtoa mantentzea zaila bada ere, zuzeneko musikaren *boom* batean gaudela uste dut. Ez dut esango negozio biribila denik, ezta gutxiagorik ere, baina behintzat aurrera ateratzen dira jaialdi asko eta musikarien artean kalitate itzela dago, jendeak gero eta kultura musikal hobea du. Gaztetxoek gogor bultzatzen duten arren betiko izen mitiko askok «lehen leerroan» jarraitzen dute.

Lizarrak baldintza ezin hobeak eskaintzen ditu azpiegituren aldetik: 50-250 pertsona bitarteko kontzertu txikiak egiteko areto estali publiko eta pribatu (María Vicuña edo Katxetas Taberna), 500 eserlekuko Los Llanos Kulturaguneko areto nagusia, hauek denak soinu ekipoarekin, eta 1.000-2.000 pertsona bitarteko areto estaliak (kiroldegia) eta estali gabeak (Los Llanoseko San Benito atzealdeko zelai berria edo zezen plaza). Gauza ugari antolatu daiteke baldintza hauetan. Jaialdi handiagotarako, inguruan ere egokitu zitekeen esparruren bat, baina orain horretan pentsatzen jartzea utopikoa izango da akaso, edo ekimen puntual berezientzat Los Llanos parkeko erdiko zelaia, 2016an 18.000 pertsona bildu ziren Manu Chao-ren kontzertuan.



Agian 500-800 lagunendako areto estalia falta da, segun eta zer mailako taldeak programatzeko 300 sarreratik gora beharko bailirateke, baina aizue, Lizarran gaude, ez Iruñean. Los Llanos Kulturaguneko aretoaren beheko eserlekuak desmuntatzerik balego honelako saioetarako...



Mikel Diaz Oses

### 5. Zer proposatuko zenuke etorkizunerako?

Euskal Herrian maila handiko jaialdi erraldoiak daude (BBK Live, ARF, Bime, e.a.), baina orain arte tamaina ertaineko festival askorik ez da egon, eta uste dut hemen badela oinari nahikoa inguruko lurraldean (EH, Errioxa, Aragoi) erreferente izan daitekeen tamaina ertaineko jaialdi bat antolatzeko, berdin zait zein estilotan. Halere, honen antolaketak lan handia sortzen du, eta agente asko jarri beharko liriteke elkarlanean helburua lortzeko, enpresa pribatuak zein erakunde publikoak. Lizarra hiriaren izena musikaren mapan jarriko lukeen zerbait izan liteke, jendea erakar lezakeena, zerbitzu-hiri honen ekonomiarako ona zatekeena. Baina

kompetentzia ere badago, azken boladan formatu honetako bi jaialdi berri sortu baitira, bata Iruñean (Iruña Rock) eta bestea Gasteizen (Aske Rock), eta ustez 2018an ere antolatuko dira. Berez, Lizarran mugimenduak egon badira, ea noraino iritsi daitekeen maila.

Gainontzeko antolatzaileen artean ilusioa mantentzen bada, ziurrenik berriz ere kalitatezko eskaintza anitza izango dugu.

Bestalde, antolatzaile guztien artean agenda bat osatzea ezinbestekoa da, helburu bikoitza lortzeko: alde batetik hitzorduak urte osoan zehar banatzeko, eta antolatzaileen artean datak «zapaldu» ez daitezen, edo ditzagun, hobe esanda; eta bestetik saturazioa ekiditeko.

## IRKAIA «Oso eroso sentitzen gara hitzak euskaraz sortzen»



Musika talde «berria» dugu etxean, Irkaia: Mikel (bateria), Nelson eta Erik (gitarrak), Iker (baxua eta ahotsa) eta Xabi (ahotsa).

### 1. Indar handiz sartu da Irkaia agertokian. Zerotik eklosionatu da?

Urte asko daramagu elkarrekin beste proiektu batzuetan (Zaplastako, The Kamikaze Bubbles, Prest!) eta zerbait berria egiteko asmoarekin elkartu ginen. Bilakaera naturala izan dela esan genezake. Irkaia bezala «ofizialki» 2017ko ekainean atera ginen kalera, baina 2015etik daramagu proiektu honi itxura ematen.

### 2. «Irkaia» izena. Babiloniarren «itzulbiderik gabeko azpimundua», estetika ala beste zerbait?

Taldearen izena beti izan da erronka handia guretzat. Hasi eta urte batera erabaki genuen izena. Izen ona iruditu zitzaigun: motza eta gogoratzeko erraza.

Gero, diskoaren eta taldearen diseinuarekin hasi ginenean, nolabaiteko nahasketa bilatu genuen. Nola lotu Babilonia eta

Bodegas  Lezaun  
Asador-Jatetxea

Enoturismo  
Bisita gidatuak  
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierrri) NAFARROA  
info@lezaun.com - www.lezaun.com  
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

  
Orreaga  
Kafetegia

Denon topagunea.

San Andres kalea • Lizarra

gure garaia? Garai bateko tematika musika elektronikoarekin? Bestalde, logoak ez dauka interpretaziorik, orrialde zuri batean egindako marrazkia da.

Gai honetan Ion Munarriz izan da jarraitu dugun izarra, gure ideia zoro guztiak ikusgarri egin ditu. Berak lagundu gaitu taldearen itxurarekin: diskoa, kamisetak, bideoklipa, pankarta... Sekulako artista da, bizia zor diogu. Ion-en laguntzarik gabe, Irkaia ez zen izango den modukoa.

### 3. Ekainean lehen kontzertua eta diskoa. Sortu eta interneten doan zintzilikatu, egile-eskubideak?

Gai zabala dago hemen hitz egiteko, baina ez diogu buelta gehiegi emango. Guretzat egile-aitorpena, edo horrelako zerbait izango litzateke zuzenagoa. Ez dugu SGAE ez bestelako elkarteetan sinesten. Gure abestiak denen esku daude.



### 4. Irkaiaren abestiak eta facebooka euskaraz. Zeren isla da? Zeren kontrastea? Zergatik ausartu euskaraz egitera eta ez bietara?

Taldea sortu zenetik, oso argi genuen abestien hitzak euskaraz egin nahi genituela. Mota askotako musika entzuten dugu, baina betidanik euskal musika izan da gehien kontsumitu duguna. Oso eroso sentitzen gara hitzak ateratzeko orduan.

Sare sozialetan euskaraz eta gaztelaniaz hasi ginen, baina azkenean eromen hutsa zen, beraz, dena abestien hizkuntzan egitea erabaki genuen. Hala ere, izan dira abestien itzulpenak eskatu dizkigutenak, eta arazorik gabe helarazi dizkiegu. Azken finean, musika ez da entretenimendua bakarrik, ideiak zabaltzeko tresna bat da, eta ideia horiek ahalik eta jende gehienari helarazi nahi dizkiogu.

### 5. Nola izan zen diskoaren grabaketa?

Ba, egia esan, ez da grabaketa normal bat izan. Elektronika gauza berria zen guretzat, eta grabaketa prozesua gure aldera ekarri dugu.

Hasteko, musika guztia lokalean grabatu genuen: bateriak, baxuak eta gitarrak. Honekin guztiarekin nolabaiteko oinarria eraiki eta, ondorengoak, Aitor Samia-ren eskutik etorri dira, Lizarrako soinu teknikaria eta laguna. Abestien ahotsak berarekin grabatu eta gure oinariarekin mirariak egin ditu. Bera izan da nahasketa eta masterizazio prozesuaren gidaria.

LIBRERIA-PAPELERIA

**INO**

LIBURUDENDA-PAPERDENDA

Zapateria Kalea, 3  
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA

Jatetxea

**Volante**

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak  
Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695



## Foto-inkesta

### Musika

Fotoinkesta hau osatzeko musikarekin loturaren bat duten lau lagunengana jo dugu. Batetik, Maria Jimeno, abeslaria; bigarrenik, Iñigo Urrizelki, Urko Peral eta Unai Lage, Lur soinu sistemakoak; eta azkenik, Isidro Jimenez, irrati esataria eta ikuskizunen antolatzailea. Bi galdera hauek egin dizkiegu:

1- Zer iruditu zaizu azken garaian Lizarran izan dugun musika egitaraua?


2- Zer proposatuko zenuke etorkizunerako?



#### Urko Peral, Unai Lage eta Iñigo Urrizelki (Lur soinu sistema)

1. Anitza izan dela iruditzen zaigu, musika estiloetan, antolatze eran, formatuan, lekuetan... Lizarrako txoko askotan izan dira kontzertuak, esate baterako txosna guneetan, Los Llanos Kulturagunean, Lizarra Ikastolan, Gaztetxean, Gaztelekuan, zezen plazan eta baita Foru eta Santiago enparantzetan ere. Kontzertu izaera ugari izan dira: elkartasun kontzertuak, Udalak antolatutakoak, kolektiboek antolatutakoak eta enpresa pribatuek ere. Estiloetan aniztasuna eta baita formatuetan ere: handiak eta txikiak, leku itxietan eta irekietan, gizonezkoak eta emakumezkoak, haurrak eta zaharrak... Orokorrean kontzertu ugari egon dira eta maila handikoak.

2. Etorkizunerako, iaz bezala kontzertuen izaera anitza izatea gustatuko litzazuke arlo guztietan, bai estiloetan, antolakuntza, lekuak... Uste dugu ongi legokeela Lizarran munduko musika eta kulturei dagokien lekua eskaintzea. Oso garrantzizkoa ikusten dugu Udalak orain arte bezala, musika zein kulturari beharrezkoa den babesa eta lekua ematea urtez urte gora joan dadin.



#### Maria Jimeno

1. Gustatu zait, oso egitarau zabala izan da, pixka bat denetarik egon da. Bai Udalak, bai ostalari eta kolektiboek Lizarran kontzertu pila antolatu dituzte eta horrek herriari bizitasuna ematen dio. Bestalde, sortzen ari diren talde berrietan arreta gehiago jarri beharko genuke. Lizarrerria Fest adibidez ideia ona da horretarako, ea finkatzen den, lehiaketa bat baino gehiago, taldeek haien lana erakusteko lekua izan daiteke.

2. Talde berriak ekarri, agian hemen hain ezagunak ez direnak, mota ezberdinetakoak... Badakit zaila dela jendea mugiaraztea eta are gehiago taldea ezaguna ez denean, baina poliki-poliki.



#### Isidro Jimenez

1. Nik uste dut nahiko kontzertu izan direla Lizarran. Denetarik izan dugu. Esate baterako, Lizarrako jaietan antolatu zena adibide on bat da. Bestalde, esan behar dut: aupa gure folklore taldeak! Egiten duten lanagatik aipatu nahiko nituzke.

2. Jaietatik kanpo, urtean zehar ere adin guztientzako kontzertuak izatea ongi legoke. Ildo horretan, ea Los Llanos Kulturagunean, proposatzen dizkiguten musika mota edo estilo desberdineko zikloak Lizarrerriko eta kanpoko musikariekin.





## Gurutzegramak


### Gurutzegrama definizioak musika

#### *Ezker eskuin*

- 2-Manu .....
- 7-Orioko bardoaren izena.
- 8-Hertzainak taldeko abeslaria.

#### *Goitik behera*

- 1-.... eta fitipaldiarrak.
- 3-Gatibuko abeslariaren izena.
- 4-Euskal rocka hasi zuenaren izena.
- 5-Mercuryren taldea.
- 6-Lizarrako rock talde historikoa.



## Euskalglifoa

### Musika



### Fisioterapia Zentrua

Tel.: 626 775 603

**MD Maitte Dufur**

Merindad kalea, 6 (B sektorea) • Estella-Lizarra



Sorkunde Garbia pasealekua, 33  
31200 Estella-Lizarra

GURE ESKU DAGO LIZARRALDEA

# NÓSALTRES PREST!

## Apirilak 21 Lizarran

Naziorik gabeko herrien kulturaren bitartez, erabakitzeko eskubidearen aldeko elkartasun eguna



Maiatzaren 6an, galdeketa herritaren bidez, Lizarraldeko hainbat herritan erabakitzeko eskubideari atea irekiko zaio, hain zuzen ere Deierri, Lezaunen eta Oteitzan. Antolatzaileen ahotan, «Galdeketa Herritarra pertsonen esku izan behar duen tresna demokratikoa da, erabakitzeko eskubideari bide emango dion tresna».

**Gure Esku Dago Lizarraldea** ekimenak eskualdean emanen duen lehen pauso honekin erabakitzeko eskubidearen inguruko gogoeta pizten hasi nahi du. Honela, festa giroan, eskualdeko herrien arteko elkarlana eta elkarbizitza sendotzeko aukera eskaini nahi dute galdeketa zein NósAltres Prest! jaialdia antolatuz.

Estaturik gabeko nazioen kulturak ardaztuko du jaialdia eta, zentzu horretan, zutabe nagusi izanen ditugu gaueko kontzertuak: Hauek SES taldearekin hasiko dira, Galizatik datorren taldeak rocka, bluesa eta Galizako musika tradizionala maisuki nahasten ditu. Auxili izanen dugu ondoren, Katalan Herrialdeetako reggae talde honek ibilbide geldiezina eta zorabiagarria izan du azken musika denboraldietan. Euskal Herriko Glaukoma taldearen rap eta reggae doinuekin izanen du segida jaialdiak eta, azkenik, DJ Elepuntok biribilduko du Lizarrako gaua.

### EGITARAUA

**Goizean:** Goiz kulturala Euskal Herri, Països Catalans eta Galizako taldeekin; eta haur jolasak Santiago plazan (11:00). Kalejira (12:00).

**Eguerdian:** Bazkari herrikoia (14:30). Haur ikuskizuna (16:30). Santiago plazan.

**Kontzertuak:** Kalejira (18:00). Ate irekiera (19:30). Kontzertuak Lizarra frontoian (20:00): SES + Auxili + Glaukoma + DJ Elepunto (12 € aurretik, 15 € bertan)

**Sarrerak:** Lizarra (Katxetas, Berri, Ametsa, Ino, Etxeberria). Iruña (Bar Garazi, Herriko). Tolosa (Kopibat). Zirauki (Iturrisar).

kotarro

41. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.  
31200 Lizarra - Nafarroa  
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:  
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007  
Ale kopurua: 700

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bat izan du, Euskarabideak egiten duen idatzizko prentsarako, irratietarako eta on line hedabideetarako laguntzen deialdiaren bidez emana.

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluen edukinaren ardurarik Garen Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.



paper birziklatua